



Ereintza 50 urtez lanean gogotsu

Doinua: "Habanera"

Julian Albistur Aranburu

1.

Laguntzaile gaiztoa zen
sorrerako diktadura.
Zapalkuntza ekidinik
sortu ondoren mundura
bost hamarkadaz mantendu
etengabeko ardura.
Gaur pentsatzen jarriz gero
sortzen duen harridura:
herrian txertatu baitu
lan jardunaren ohitura
eta paregabe zaindu
Euskal Herriko kultura.
Nahiz eta aspaldikoa
den jaiotze data hura
lanean gogotsu segi
eten gabe abentura.

4.

Txukun banandu ondoren
lastoa eta garia,
egindako lana izan da
ona bezain ugaria;
hainbeste arlo jorratuz,
askotan aitzindaria.
Herri osoarentzako
benetako oparia;
agian mereziko du
domina edo saria,
urteotan erakutsi
duenez kategoria,
baina ez diot egin nahi
Udalari eskaria.
Alkate jaunak badaki:
zain dago Errenteria!

2.

Landuz euskal antzerkia,
baita ere euskal dantza.
Eskulangintza azoka
urtero doa gorantza.
Txistularien taldea,
txistuaren esperantza.
Xenpelar sariketa da
bertso mailaren balantza.
Poesia zein ipuinak
landu nahi bada hizkuntza.
Kultur esparru ugari
jorratuak ditu, antza.
Eskubailoian trebeak...
Nolako kirol eskaintza!
Uzta bikaina bihurtuz
garai hartako ereintza.

5.

Euskal giroko jendea:
jator bezain atsegina;
kultura ardatz nagusi
eta lanerako grina;
txalogarria izan da
egindako ahalegina;
eskertzekoa da beraz
lan eskergea hau egina.
Gerora ere kulturari
izango du eragina,
esparru horretatik at
ezin baitut imajina
eta aitortu beharra,
delako egi gordina:
Ereintza gabe herri hau
litzateke ezberdina.

3.

Gabonetan gabon kantak
zein abesti lehiaketa;
urte zaharreko koplak
pentsa, ez da berriketa:
jendeak kalean zehar
jartzen du nahiko arreta.
Santa Ageda bezperan
koplen errepikaketa.
Usadio zahar hauek
mantendu nahi dira eta
Ereintza ahalegintzen da
itxaropenez beteta.
Euskal kutsua hartzen du
gure herriak tarteka
Xenpelarrek goza dezan
zimurto gabe kopeta.

6.

Berrogeita hamar urte,
hastear beste aroa;
gaurdaino jasotakoa
benetan da oparoa.
Ospakizun urtea da
beraz zorion beroa;
ez uko egin lanari
ziurtatzeko geroa.
Ereintza ereiten jarrai
Errenteriko soroa;
eremua goldetzeko
badago jende zoroa:
zahar, gazte, neska, mutil;
bikoitza da generoa
eta gidari lanean
sasoian dago Naroa.